

urrats feminista

04. Egiten dugunak, egiten gaitu



ernaigazte.cc

2017ko azaroa

"Ibilian ibilian egiten da bidea... lau urte
hauetako arrakala heldu dadila kanto
guztiak pitzatzera... eta sortuko dira
besteak".



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/deed.eu>

1.

**URRATS BAT
EMAN DUGU,
BIDE
LUZE BAT
HASTEKO**

Urrats Feministaren laugarren urtera iritsi gara: urrats honen bukaerara, baina bide luzeago baten hasierara. Lau urteko barne prozesu honen lehen urtean, sexu-genero sisteman eta patriarkatua eta kapitalismoaren arteko ezkontzan sakondu genuen. Bigarren urtean, mendebaldeko feminismoaren eta euskal feminismoaren garapen historikoa aztertu genituen, baita Ezker Abertzaleko Prozesu Feministari begiratu bat bota ere. Iaz, hirugarren urratsean, bizitzako eremu ezberdinetan geneukan pentsamendu eta praktikak feministotik aztertu genituen. Formakuntza saio hauekin, prozesu bezala ulertzen ditugun heinean, etengabe ikasten eta eraldatzen gabiltzala uste dugu. Horregatik, bere fruituak eman dituen, baina oraindik erronkak dituen ibilbide gisa bizi dugu. Atsedetik gabeko borroka dugu, eremurik pribatuena eta pertsonalena ere zalantzan jartzen diguna, hori ere iraultzera bultzatzen gaituena.

Laugarren urrats honetan, iaz zabalduko bidetik, praktika feministan sakontzen jarraituko dugu. Iaz, Betaurreko moreetatik gure bizitzan berebiziko garrantzia duten 4 eremutan (harremanak, gorputza, lana eta militantzia) ditugun praktikak aztertu genituen, berauek eraldatzeko ikuspegi kritikoa eraikiz. Gure etsaia den kapitalismo heteropatriarkalaren inguruan modu abstraktu batean hausnartzetik harago, guk geuk honen erreprodukzioan dugun eskuhartzea zelakoa zen aztertu genuen. Begiak irekitzeko balio izan zigun. Baina hain errotuta ditugu pentsaerak eta praktikak eraldatzeko motz gelditu zaigu urte bateko lanketa. Oraindik orain lan banaketetan kontuan hartu bai, baina rolak hautsi gabe jarraitzen baitugu; inposatu dizkiguten aurreikuspenek gure bizitzak norabidetzen jarraitzen dute; tabuek tabu izaten jarraitzen dute...

Behin arazoak identifikatuta, konponbide posibleak hausnartuta eta eraldaketarako subjektua gu geu izanda, norbanako zein kolektibo, aurrera egiteko tresnak geureganatzea besterik ez zaigu falta. **Eta hori izango da aurtengo erronka: gure ekina eta kontzientzia feminista izateko ditugun zailtasunak jo-puntuari jarri, maila indibidualean zein kolektiboan, eta oztopo horiek gainditzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditugu.** Konpromisoak hartzea bideratutakoa izango da, beraz, laugarren Kaiera hau. Baina konpromisoaz nahikoa ez eta neurriak ere izango ditugu hizpide, honakoa eta bestelakoa konpontzeko aukerak zedarriko baititugu. Emango dugun urrats hau aurrekoen segida izaki, neskak ahaldu eta mutilak pribilegioak alboratzeko norabidean emango dugu; pentsatzen dugulako batzuk boteretuz eta besteak desboteretuz egingo dugula guztiok aurrera. Gutako bakoitzaren bizipenak izango dira gogoeta guztien hazi, bakoitzaren esperientzia eta sentipenek zientziaren egiek hainako balioa baitute.

Aurtengo **Kaiera honetan, norberari buruzkoek harago, gure militantzia eta praktika feministaren inguruan sakonduko dugu batik bat.** Azken batean, antolakunde iraultzaile eta feminista izanda, etxe barrukoa ere eraldaketa indar bilakatzeko eta ez oztupo. Aldarazi dezagun militantzia eremua, bertatik gainerako eremuak aboratzten jarraitzeko!

Edukiei dagokienez, roletan oinarritutako militantzia eredu landuko dugu, gure militantziaren heterogeneitatea aldarrikatuz, hau da, gure baitan rol eta jarrera ezberdinak ematen direla azalaraziz eta guztiak balioan jarri.

1. Balore eta ikugarritasunaz arituko gara eta horretarako, zelan ez, bazterretan daukagunari arreta berezia jarriko diogu.

2. Zaintza hirukoitzean sakonduko dugu, ni militantearen-taldearen-proiektuaren zaintzan, hiru elementu hauen oreka zail baina ezinbestekoan.

3. Parte hartzeaz eta espazioen okupazioaz hausnartuko dugu, bakoitzaren jardun militantea boteretzen duten ezaugarriak identifikatuz.

4. Eta azkenik, aliantzez jardungo dugu. Hauek sakon landuko ditugu aurretik konpartitu eta ikasitakoa mahaigaineratuz.

Saioen antolaketari dagokionez, **bi saio** bakarrik egingo ditugu aurten. Baina ez pentsa saio gutxiago egitegatik lanketa arinagoa edo azalekoagoa izango denik!

> Lehenengo saioan, militantzia eremuaren analisia egingo dugu arestian aipatutako elementuen arabera: aurreko urratsetan emandako gogoetei jarraiki, oraindik aldatzeke daukaguna mahaigaineratuko dugu. Baina **ez gara identifikazio hutsera mugatuko, oztopoen erroa heldu nahi dugu eta horregatik emango diogu garrantzia handia ZERGATIK? galderari. Hutsuneen atzean ezkututzen diren zergatiak azalarazi nahi ditugu.**

> Bigarren saioan, **oztopo horiek nola gainditu adostuko dugu.** Baina azaleko erantzunetan geratu gabe eta egin beharreko prozesuari garrantzia emanaz. Beraz, ZER EGIN galdera, **NOLA EGIN** galderarekin osagarrituko dugu, konpromiso indibidual eta kolektibo zehatzak hartuz.

Hirugarren Kaieran metodologia zehatz bat erabiltzen hasi ginen gai desberdinak lantzeko: generoaren arabera, talde bereizietan eztabaidatu genuen. Ondoren, hitz egindakoa partekatu eta talde bateratuak osatu genituen. Liburuxka honetan planteatzen ditugun dinamikak ere, modu berdintsuan burutuko ditugu, neskok eta mutilok ditugun eginbeharrak bereiztuz helburuaren arabera.

Neskon blokean, izendatu gabeko ezinegonei izen eta abizenak jarriko dizkiegu, gure militantzia esparruan ahalduzko eta horren araberako praktikak garatzeko ditugun oztopoak eta zapalkuntzak identifikatu. Horrez gain, oztopo horiei aurre egiteko estrategia pertsonal eta kolektiboak garatuko ditugu.

Mutilean, aldiz, aurrera egiteko atzera egin beharraz arituko gara: zein pribilegio ditugun identifikatu eta noiz erabiltzen ditugun aztertuko dugu. Beti ere, lanketaren helburua pribilegioen ukapen horretan sakontzeko estrategia pertsonal eta kolektiboa definitzea dela ulertuta.

Saioak aberasgarriak izatea nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa izango da norbere mugak eta denborak errespetatzea, momentuaren arabera, hauek zainduz, mantenduz edo mugitzera ausartuz. Horregatik, saioan beti sortuko dugu espazio seguru bat. Presiorik gabe, parte hartzeko hamaika modu daudela azaleratuz. Espazio seguru hori izain daiteke aulki bat, txoko bat, kalea, isilik gelditzea, behatzaile rola hartzea...

Talde osoaren ardura izango da Urrats Feministaren garapena egokia izatea: akta jasoko duenarena, parte hartzeko prozesuari arreta jarriko dionarena, dinamizatuko duenarena, parte hartuko duenarena... Horregatik, lanketa egunen datak denboraz jarriko ditugu, eta ahalik eta asistentzia handiena bermatzen ahaleginduko gara.

Kaiera honetan, guk, antolakunde moduan; guk, elkarrekin lan egiten eta harremantzen den talde bezala; guk, sistema zelan erreproduzitzen dugun aztertu eta eraldaketa prozesuan ditugun oztopoez hausnartuko dugu. Eraldaketari zein muga jartzen dizkiogun, zein zailtasun topatzen ditugun, zeren beharizana daukagun... Ez gara entzundako eta ikasitako diskurtsoetan eroso geldituko, dinamika hauekin, guk geuk bizi, sentitu eta egiten duguna eraldatuko dugu.

Zabala eta sakona da mugitzeko daukagun lurra, beraz, erabili Kaiera eraldaketarako hauspo bezala.

Aupa gu!

Ernaik abiarazitako prozesu feminista ezer baino lehen POZA izan da niretzako. Eta ondoren gehituko nizkioke beste hainbeste izenlagun: indarra, ikasketa, esperimentazioa, tentsioa, hausnarketa... Ezinbestekoa eta beharrezkoa den prozesua da, feminismoa erdigunean jarri ezean, iraultza ez baita guztiontzako askatzailea izango. Oraindik bide luzea daukagu egiteko eta gauza asko aldatzeko, baina hasiera on honek ematen duen indarrarekin jarraituko dugu bidea egiten pausoz pausoz... Aurrera bolie!

Esan dezaket bazterrean kokatua nengoela, bai bizitzan zein militantzia, nahiz eta urteak militatzen egon, ez nintzen guztiz parte sentitzen. Baina orduan prozesu feminista heldu zen, kaierekin, tailerrekin... orduantxe taldean ikusgarri bilakatzen hasi nintzen, kaierak dinamizatzen, haunarke-tetan ekarpenak egiten etab. Esan dezaket kaierak niretzat arnasteko eta oxigenatzeko aukera izan direla, printzipioz oso ikusgarria ez zen figura eta rola erdigunera ekartzen lagundu zuelako.

Benetan balio izan didan formakuntza, gogoz eta zerotik ikasten hasita izan delako beharbada. Gainera, hasieratik bukaeraraino bizi izan det ta progresiboki gai desberdinak nola ikutu ditugun ikustea pozgarria da.

2.

**ASKORAKO
EMAN DUEN
URRATSA**

Urrun geratzen dira ZUKGUA prozesuan emandako eztabaida sakonak: Ernai antolakunde sozialista bada, beharrezkoa da feminismoa proiektu politiko gisa esplizitatzea? Zergatik feminismoa eta ez beste balio edo helburu politiko batzuk? Helburu estrategiko gisa kokatzeak zentzua du gure jarduna hain maskulinizatua den honetan? Ernairen sorrera Kongresua ezaugarritu zuen eztabaida nagusienetako bat izan zen feminismoarena, eta honi helburu estrategikoaren izaera ematea, gerora zeresan handia eman duen erabakietako bat. Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen Ernai antolakunde feminista izan behar denik edo feminismoa gure helburu estrategikoetako bat izan behar denik. Izugarritzko urratsa da hori, poztekoa izango zen bestelako eragileetan ere halako adostasuna izatea gai honen bueltan.

Dena den, **izenak izana egiten ez duenaren jakitun, lau urteko barne prozesua diseinatu genuen Ernai sortu berria zela. Helburua argia zen, antolakunde eta militantzia feminista izateko oinarri sendoa jartzea.** Hasieratik argi genuen lau urtetan ez genuela bizitza osoan barneratutako balore sistema irauliko, baina zalantzarik gabe, urrats handiak eman ditugu. Barne prozesuan diseinatutako 4 urteak bukaerara iristen ari diren honetan, **prozesuak zer eman duen (eta zer ez) baloratzea ezinbestekoa dugu.** Esan bezala, 4 urte hauek bide luzeago baten hasiera baino ez dira izan eta epe laburrean abiapuntu berriak bilatzea egokituko zaigu.

Prozesua eskualdez eskualde eta herriz herri homoginoa izan ez bada ere, orokorrean errepikatu diren zenbait elementuk balorazio orokor baterako aukera ematen digute. Hala ere, aipatu behar da prozesuaren garapenak tokian toki izan duen bilakaeraren daturik ez daukagula; datozen hilabeteetako zeregina izango da hauek biltzea parte hartzearen balorazio kuantitatibo bat egin ahal izateko.

Barne prozesuaren tresna nagusia eduki eta metodologia barnebiltzen zituen liburuxka morea izan da, Kaiera. Urtero, eduki berriak ekarri ditu eztabaidara, eta militantzia osoarentzako derrigorrak izan diren saioen bidez landu ditugu. Kaierari esker egindako lanketaren ondorioz, feminismoarekiko hurbilpen handia egin dugu: feminismoaren oinarriak barneratu, eta gure proiektu politikoan izan behar duen zentralitateaz ohartu gara. Neska gazteon ahalduntzea bultzatu dugu Kaieraren bidez, antolakunde bertan zein gazte mugimenduan, eta mutilen pribilegioak identifikatzen hasi gara, hauei uko egiteko lehenengo urratsa. Zalantza gabekoa da Kaieraren ekarpena, **formakuntzarako balio handia daukaten sorkuntza lanak dira**, metodologia eta eduki aldetik mamitsuak dudarik gabe.

Hasiera batean erresistentziak topatzeko beldur baginen ere, oso harrera ona izan zuen barne prozesuak, bai mutilen bai nesken aldetik. Baina **garapenean bai agertu dira erresistentzia sotilagoak, eztabaida forman izan ez badira ere:** saioetako asistentzia ezegonkorra, adibidez. Hasiera batetik, eztabaida saioak burutuko ziren datak bermatzea izan da zailtasun handienetariko bat: prozesuari lehenengo ematea eguneroko presen gaineratik, kide guztiek data gorde eta asistentzia duin bat bermatzea, mutilek neskek besteko garrantzia ematea... Honi dagokionez, esan dezakegu, lehenengo Kaieraren lanketa izan zela iraunkorra:

gainerakoetan, datak asko atzeratu izan dira. Asko izan dira liburuxken lanketa osoa egin ez duten herri edo eskualdeak, lehen edo bigarren saioan geratuz. Asistentziari dagokionez, kopuruak gorabeheratsuak izan dira, baina oso modu argian mutilak izan dira gehien huts egin dutenak. Are gehiago, badaude saio bakarrean egin ez direnak ere. Deigarria da, hori horrela izanda ere, mutil askok eskatu izan dituztela eurentzako pribilegioen inguruko saioak, barne prozesua aintzat hartu edo landu gabe batzuk.

Hau guztia kontutan hartuta, 04. kaiera honekin batera, Ernaiko barne prozesu feminista osoa bizi izan ez duten militanteekin lanketa berezia egingo da: lehenengo urratsean landutako edukiak laburbildu eta saio espezifikoak egingo dira eskualdez eskualde, urrats honi amaiera emateko zentzuan

Edukien lanketari dagokionez, **Ernairen feminismoarekiko apustuak ondorio oso nabari eta ikusgarriak izan dituela baieztatu dezakegu zalantzarik gabe.** Neska orok du bere burua feministatzat, eta gehienek, feminismoa dute euren militantziaren oinarri eta bizkarrezurtzat. Kontzientzia eta boteretze feministan, izugarrizko pisua izan du barne prozesuak. Ahalduntzearen lanketak ibilbide luzeagoa izan du pribilegioei uko egin edo urrats bat atzera ematearekin konparatzen badugu, azken hori lantzen hirugarren Kaieran hasi baikinen; ondorioz, azken horretan sakontzeko beharra nabariagoa da.

Ernairen lan ildo eta jardunean ere, feminismoak presentzia handia hartu du; honen garrantzia zalantza ezina da gaur egun eta eragile askok erreferentziaz hartzen dute guk egindako ibilbidea. Oraindik ere zeharlerrotasuna modu naturalean txertatzen hobetu behar dugu, baita iruditegi berriak sortzen ere. Hala eta guztiz, emakumezkoen presentzia, genero rolen apurketa, edota ikuspegi feministaren intzidentziak gorakada handia izan du Ernaian jardunean, edozein izanda ere. Baina gure kanpora begirako diskurtso eta jardunean aldaketa nabarmenak izan badira ere, ez du garapen bera izan barne egoeraren aldaketak: oraindik orain ardura politiko gehienak mutilek dauzkate, militantzia ereduak maskulinoa izaten jarraitzen du, eraldaketarako neurri gutxi jarri ditugu...

Ahalduntzea boteretzearen ataria dela esan daiteke, eta hain zuzen, gu hasierako parte horretan gaude. Izan ere, oraindik orain: neska gazteoi hitza hartzea kostatzen zaigu, inposatu zaigun genero rolari loturiko funtzioak betetzen jarraitzen dugu, oso neska gutxi daude oraindik ere ardura politikoetan, militantzia feministaz eztabaidatu arren gure bizitzetan ez dugu iraultza feminista egin, pertsonala eta politikoa bereizten jarraitzen dugu...

Beraz, feminismoarekiko geroz eta interes handiagoa eta atxikitze handiagoa dugun arren, teoriatik **praktikara jauzi egitea, eraldatzea, kostatzen ari zaigu (ohikoa den legez).** Jauzi hori ematea oztopatzen diguten mugak zein diren identifikatu eta horiek gainditzeko ahaleginarekin itxiko dugu lau urteko Urratsa. Zer aldatu jakitun garelarik, NOLA eraldatu? galderaren erantzunak zedarrituz borobilduko dugu lau urteko ibilbidea, behin helduleku berriak geureganatuta, erronka berriei ekiteko!

Lau urte hauek hasiera besterik ez dira izan. Hasiera positiboa oro har, baina itsaso zabaleko lehen olatuak besterik ez ditugu surfeatu. Sortu ditugun baldintzak, hurrengo urratsak diseinatzeko abiapuntua dira; barne prozesu feministaren bigarren fasearen abiapuntua. Ernairen 1. Kongresuan hasitako bideak, 2. Kongresuarekin jarraituko du (bigarren Urrats Feministarekin, zein Kongresuan diseinatutako *funtzionamendu feministarantz* neurriekin).

Hiru kide hasi ginen elkarrekin militatzen, bi mutil eta ni. Haiek piloa faltatzen ziren bileretara, noizean behin agertzen ziren zerbaitetara, batez ere margoketak egitera eta. Bilera baten aspaldiko partez agertu zirela, ni eurekin eztabaidan egon nintzen, aber zer uste zuten! Taldeko ardura-duna, nagusia eta mutila etorri zen gugana, entzun gintuela, eta keinu konplize bat egin zien, esaten bezala: "zer kontuak eskatzen?". Momentuan negargura sartu zitzaidan, super saldua sentitu nintzen, aurrean ez zeudenean, ez agertzea pilo bat kritikatzeko zuten eta. Egun batzuk beranduago zergatik egin zuen galdetu nion. Erantzuna izan zen normala zela haien militantzia hain serio ez hartzea, mutilak zirela, eta adina kontua.

Birfundazioko lantaldean parte hartzeko eskatu zioten, ez zegoelako neskarik, eta hori ezin zela izan. Gainerako kide guztiak mahai horretan zergatik egon behar ziren euren curriculum militantean oinarrituta zegoen: sozioekonomian arituak, esperientzia handia Ezker Abertzaleko egituretan, hausnarketa gaitasuna, herri mugimenduan erreferentzia izatea... eta berea, emakume gorputza izatea. Baietz esan behar zuela? Emakumeon presentzia bermatzeko? Emakume moduan iraindua sentitzen zenean?

Gizon ez-hegemonikoa zarela frogatu nahi duzu, eta betaurreko moreak dituzula erakusteko, neskei parte hartu nahi duten galdetzen diezu. Beraz, azkenean, mahai horretan duzun boterea erabiltzen ari zara, neskei ahotsa emateko. Zure laguntza edo babesa behar balute bezala.

3.

**PRAKTIKA
FEMINISTA
MILITANTZIA
EREMUAN**

3.1. Balioan jartzen ditugun militantzia rolak

Mikel Laboak Bernardo Atxagaren hitzetan oinarrituz, galdetzen zuen, zer dioen isiltzen denak isiltzen denean. Guk ere bazterrei erreparatu behar diegu, baldin eta guztiok ordezkatuak sentitzen garen Gazte Antolakundea izan nahi badugu. Beraz, gure buruei galdetu beharrean gaude ea nor den bazterrean dagoena/ daukaguna? Zein gorputz? Zein identitate? Eta batez ere, zergatik ez den ikusgarria?

Jendarte antolaketa ororen oinarrian balioen kategoria zehatzak daude. Antzeko bat egingo bagenu, esango genuke gorputz baten bihotza direla balioak, eta jendarteko egitura ezberdinek osatzen dutela gorputz horren hezurdura, zeinak balioak erreproduzitu eta sustengatzeaz arduratzen diren. Balio kategoria horren arabera batzuk onak izango dira eta besteak ez, ondorioz, batzuk onartuak izango dira, ikusgarriak, eta besteak, aldiz, alboratuak eta ezikusiak. Balio edo ezaugarri horien gainean eraikitzen dira binomio edo dikotomiak.

Gure errealitatea biko kategoriatan hautematen dugu: harremanak, emozioak, maitasuna, lana, militantzia... eta burura etortzen zaigun beste edozein esparru. Baina dikotomia entzuten dugunean zer datorkigu burura? Behar bada, kultura judeo-kristaua errotua dutenei, ontasunaren eta gaiztakeriaren arteko gatazka historikoa; edo teknologia berrietan murgilduta dabiltzaneiei, sistema binarioa; akaso, betaurreko moreetatik begiratzen dugunoi, emakume eta gizonen arteko zapalkuntza harremanak, eta beste askori beraien bizitzetan hurbilago dituzten hainbat adibide: beltza-zuria, natura-arrazaia, beldurra-ausardia, eguna-gaua...

Eztabaida militantzia roletara ekarrita, dikotomikoak al dira? Badago pentsatzea gure militantzia eredu hainbeste lanketen ondoren ez dagoela dikotomiaz kutsatua, baina gure militantzia mikroskopia batekin begiratuko bagenu, zein izango litzateke emaitza? Hau hobeto irudikatzeko ariketa bat proposatzen dizugu. Bilera batean zaude orain, begiratu zure alboetara: nor dago zure alboan? Zein ezaugarri dituela esango zenuke? Dituen ezaugarri horiekin militantzian baloratua izatea lortuko duela uste duzu? Taldean ezaugarri horrek izateagatik rol zehatz bat betetzen duela uste duzu?

Seguruenik galdera hauen erantzunak ez dira baiezkoak edo ezezkoak izango, errealitateen araberrako erantzun anitzak egongo baitira. Baina esfortzu handirik egin gabe, oso ongi irudikatu dezakegu zeintzuk diren gure militantzia kideen artean agertzen diren rol desberdinak, eta zein balore edo jarrera diren rol horiek bultzatzen dituztenak. Are gehiago, aurreko Kaiera guztietan eskaini diogunean atalen bat hauen azterketari.

Zer da Ernain balioan jartzen duguna? Zoritxarrez oraindik bizi garen jendarte patriarkal honetako balio sistema erreproduzitzen dugu etxe barruan ere. Eta patriarkatuak balioan jartzen duena maskulinizatutako balioak dira, gorputz konkretu batzuei lotuak eta naturalizatuak. Ondorioz, usteldutako bihotza daukagu, eta hori aldatu ezean nekez lortuko dugu gorputz eria osatzea.

Muina jo behar dugu, beraz, balioetara.

Nor da ikusgarria Ernain?

Inolako lotsa gabe hitz egiten duena, hitzaren espazioa erabiltzeko erraztasuna daukana. Eta argi dago generoaren aldagaiak hitza hartzeko "ausardia" ezberdina esleitu digula mutil ala nesko. Emakume gisa heziak izan garenoi gehiago kostatzen zaigu pentsatzen duguna besteen aurrean adieraztea, endemas beste baten iritziaren kontrakoa bada pentsatzen duguna. Baina hitz egiteko erraztasuna izateaz harago, esaten denak ere balio ezberdina dauka; arrazoiarekin lotutako hitzartzeak ("X arrazoi daude") eta egiarekin lotutakoak ("horrela da") dira aurrera egiteko balio dutenak; bizipenetan oinarritutako iritziak edota zalantzaren bat agertzen dutenak atzean geldituz. Gazte antolakundean ikuspegi integrala izan behar duzu, baina ikuspegi integral hori gainera hitz-hartzeetan nabarmendu eta adierazi behar da, ostantzean, bazterrera.

Ardurak hartzen dituen, ondorioz, horretarako aukera daukana. Ardura asko hartzea konpromiso maila altuaren adierazle bihurtu daiteke batzuetan. Genero aldagaia kontuan hartzen badugu baina, neska eta mutilok militantziaz harago hartzen ditugun arduren sama desorekatua izaten dela konturatuko gara. Izan ere, emakumearen bizitzaren erdigunea besteen ongizatea denean, zaintzak pisu handia hartzen du, gure eguneroko denbora tarte handia besteen ondo egotera bideratzen dugularik. Horrez gain, txintxo eta arduratsu izatearen mandatua mutilen kasuan ez da hain zorrotza. Ondorioz, neska askok familiari edota lagunen zaintzari lotutako ardura gehiago hartzen ditugu (edo behartzen zaigu) edota ikasle/langile fin izatera behartuago gaude mutilak baino.

Emaitzean dago balioa eta ez hainbeste helburu horretara arte egiten den bidean. Azken emaitza da gailentzen dena bidean sentitu eta gertatutakoen gainetik, eta sarritan azken buru hori zenbakiekin lotzen dugu; "zenbat eta gehiago, hobe" izanik nagusitzen den ikuspegia. Soilik emaitzari begiratzen badiogu, ordea, estali egiten ditugu prozesuak eskaintzen dizkigun irakaspen asko. Helburuetara iritsi garen ala ez garrantzitsua da baina NOLA iritsi garen kontuan izan behar da. Kontrako ikuspegi kamutsak zerikusia dauka gizonezkoen munduari lotutako lehiakortasunaren balioarekin: izan ere, konpetizioan emaitzak dauka garrantzia, berdin du nola heldu zaren helmugara. Horrez gain, neskon munduari lotutako segurtasun ezak askotan eramaten gaitu gauza bat nola egin behar den galdetzer, eta beraz, prozesuan arreta jarri eta ikastera, baina gutxiagotan ikusiko dugu mutil bat halakorik egiten (azken hauek ez dakitena ere egiten saiatuko dira lehenbizi eta emaitzarik lortzen ez badute galdetuko dute). Jarrera txiki horiek eramaten gaituzte prozesuari garrantzia handiagoa ala txikiagoa ematera generoaren arabera.

Eredu maskulinoaren baitan (arrazoia, ausardia, indarra...) jarduten duena dago balioan, maskulinoa hartzen delarik nortasunaren adierazle, eraginkortasunaren berme. Kontrakoa, aldiz, ahultzat hartzen da eta ez dugu hainbeste baloratzen. Zentzu horretan, ondo egindako lanen errekonozimendu txikia egiten da eta gutxiago hauek ezkutukoak baldin badira; egun, oraindik sakrifizio eta indar handia eskatzen duten ekintzak dira ikusgarrienak. Komunikazioaren alorrean, parte-hartzearenean, zaintzan... egiten denean arreta gutxiago jarriz, eta ondorioz, inbertsio txikiagoak eginez. Nahiz eta azken urteetan zaintzari aitortza handia egiten zaion, oraindik orain, emakumezkoen ardurapean gelditzen da besteen ondo izatea bermatzea. Zaintza antolakundearen zeharlerroa izango balitz, guztion inplikazioa eskatuko zukeen, eta gaur egun egoera horretatik urrun gaude.

Gorputzak. Neska militanteon gorputzak daudenean ikusgarri, oraindik itxura fisikoari lotutako epaiak gailentzen dira jardun militantearen gainetik, edota gune askotan parte hartzeko arrazoi bakarra neska izatea da; ez bestelako gaitasunak. Nesken gorputza objektu bihurtu eta sarritan edertasunaren langa pasa behar izaten dugu baloratuak izateko; lehendabizi panpoxak, eta gero gerokoak garelarik askoren begientzat. Bestalde, ezinbestekoa ikusten dugu erreferente femeninoak ahalik eta espazio gehienetara hedatzea, neskak lehen lerroan izatea, baina horrek ez du esan nahi hauen presentzia gorputz hutsera mugatu behar denik; aitzitik, hauek gune bakoitzean egin dezaketen ekarpena ikusgarri bihurtzea ezinbestekoa da. Neska borrokalari moduan izan nahi dugu baloratuak, bi ezaugarriok militante feministon artean txanpon beraren bi aurpegi bezala baitira, banaezinak. Neskak espazio guztietan izanik, erreferente femeninoak ikusgarri bihurtzen ari gara, baina baita herri mugimenduan ikuspegi feminista txertatzeko aukerak areagotzen ere.

Ikusgarri denaren eta ez denaren kategorizazio oker hau aldatzeko zer egin dezakegu? Ezinbestekoa da bazterrei erreparatzea, bertan kokatzen direnen/ ditugun bizipen eta aldarrikapenei kasu egitea. Bazter horretan neska gazteak gaude, ezkutuko lanak egiten ditugunak, maskulinitate hegemonikotik urruntzen diren cisgizonak, aniztasun funtzionala daukagunak, bollerak... Bazterretara hurbildu behar gara, bertan den miseriaz blaitu, bazterrak erdigunean jarri eta ikusezina diren problematika horiek, taldearena egin. Zapalduak gara (etxe barruan baita) eta horren kontzientzia hartu behar dugu, identitate horretatik ekin behar diogu iraultzari, biktima izan baino eraldaketarako subjektu izateko. Bazterrak ikusgarri egiteak ezinbestean gure balio kategorioa aldatzea izango du ondorio, lehenetsuna gaur egun ikusezina denari emanaz eta ikusgarri dena hirugarren mailan geldituz.

Zelako militanteak izan nahi dugu?

Denok ezaugutzen dugu **“supermilitatearen”** rola, dena egitera heltzen dena, ez duena delegatzen, bileretan asko parte hartzen duena, edozer egiteko prest dagoena edo gai dena, lanak bere gain hartzeko aukera handia daukana,

militantzia oren aurretik jartzen duena... edozer egiteko gai diren, denbora duten, ezaugarri baloratu guztiak betetzen dituzten pertsonak existitzen ez direla behin baino gehiagotan landu badugu ere, izugarritzko prestigioa izaten jarraitzen du gure artean; gaur egun arte ez gara iruditegi berriak eta balorazio eskala berriak asmatzeko gai izan. 24 orduko militantziaren kontzeptua, taldearen beharren menpe egotea baino gure bizitzako eremu guztietan balore iraultzaileen arabera jardutea dela askotan errepikatu dugun arren, ez dugu guztiz barneratzea lortu.

Militantzia eredu hori balioan jartzen dugunean, zer ari gara prestijiatzen? Taldean lan egiteko gaitasuna, eraginkortasuna edo emaitza? Azken urteetan landu bezala, logika kapitalistak eta patriarkalak erreproduzitzeko joera dugu. Pertsonen beharrianak eta aniztasunak aintzat hartu gabe, taldearen beharrianak, eta ez proiektu politikoarenak, elikatuko dituzten militanteak bilakatu. Ondorioak ere landu izan ditugu: proiektua desitxuratzea, kideak erre eta taldea uztea, perfil zehatz bat ezaugarritzen duten militanteen arabera funtzionamendua...

Arestian aipatu legez, beharrezkoa dugu premisa feministatik abiatuta gure militantziaren heterogeneitatea aldarrikatzea, hau da, onartzea gure baitan rol eta jarrera ezberdinak ematen direla, eta guztiak balioan jartzea dela helburua. Aniztasuna oztopo bilakatu beharrean, balioan jarri behar dugu, gure proiektu politikoa aberastu egingo duelako. Horrekin batera balio eta ikuspegi feminista geureganatzeko deseraikuntza prozesu pertsonal eta kolektiboak ezinbestekoak izango dira

3.2. Lan banaketa

Egun gure militantzia esparruan dauden rolek, eragin zuzena daukate lan banaketan. Indarra eta ausardia bere ezaugarri nagusi egiten dituenak kaleko ekimenetan hartuko du pisua; enpatikoa denak, parte-hartzean eta metodologiak prestatzen; txukuna eta ordenatua denak, aurrelanketa eta prestaketa lanetan; norbere buruarengan konfidantza duenak kanpora begirako kontuetan... Norbere gaitasunei zukua ateratzea ona da: taldea eta proiektua aberasten ditu. **Arazoa gaitasun horiek generoei guztiz lotu eta beste gaitasun batzuk ez lantzean sortzen da.** Izan ere, taldean sortzen diren botere-haremanak zein pertsona batzuekiko menpekotasuna lanen banaketarekin guztiz lotuta dago. Aurreko atalean landu bezala, batzuei beste batzuei baino balio gehiago ematen diegu (nahiz eta denak diren ezinbestekoak taldea mugimenduan mantentzeko) eta balio horri guztiz lotuta dago funtzio horiek betetzen dituzten pertsonen talde posizioa. Honek ondorio oker ugari dakarzkigu.

Horrez gain, **funtzio, ardua edo lan guztiek ez dute denbora, arreta, esfortzu, dedikazio... berdina eskatzen.** Horri ere erreparatu behar diogu: ematen diogu balioa guzti horri? Oreatua da bileretatik kanpo militantziari eskaintzen

diogun denbora? Oreatua bere horretan, eta oreatua militantziaz gain ditugun gainerako konpromisoekin (lana, familia, ikasketak, lagunak...)?

Militantzia, gazte antolakundea, bizitzarako irakaspen bat ere bada, eta beraz, norberaren ezagutzak eta gaitasunak biderkatzeko aukera eman beharko luke. Horretarako, ezinbestekoa da lanen banaketa eta birbanaketa etengabeak ematea.

Lanen banaketa gainera, barne eraldaketa eta eraldaketa kolektiborako prozesu bat ere bada. Sozializazio prozesuek inposatutako mugak apurtzeko bitarteko bat izan daitezke, handiegi geratzen zaizkigula uste dugun erronkei ekiteko. Horrek ez du esan nahi inola ere norbere esku erori behar denik lan banaketaren ardura. Lan banaketak indibidualizatu beharrea, talde-lana ere bilatu behar dugu, elkarrengandik ikas, lana erraztu eta beldurrei elkarrekin aurre egiteko. Horrek, taldearen funtzionamendua zein emaitza hobetuko ditu eta gure militantzian beste balio batzuk indartuko ditu.

Era berean, gure arteko lan banaketetan jartzen dugun arretak, kanpora begira ere eragina du, dela gazte mugimenduan, herri mugimenduan edo herrian. Neskei ikusgarritasuna dakarten ardurak emanez, erreferentzia eta eredu berriak sortzen ditugu; mutilen zaintzari lotutakoak emanez, enpatia lantzeko esfortzua eginarazi eta eredu berriak sortzen ditugu... deseraikuntzarako bitarteko bat da lan-banaketa, balio hori ematen baldin badiogu.

Horrek guztiak, lan banaketak azkar eta hausnartu gabe ez egitea suposatzen du. Lan banaketa ezin da bilerako azken 5 minutuetan egin, bata altxatuta dagoenean eta bestea hurrengo data agendan begiratzen dagoen artean. Ondo eginez gero eraldaketarako duten potentzialitate berbera, baina kontrako ondorioekin dute gaizki egindako banaketek: inertiaren bidez rol batzuk indartzea, erreferentzia maskulinoak sortzea, taldean botere-harreman desorekatzea...

Azken urteetan, Kaiera guztietan zein bestelako espazio batzuetan landu dugu lan-banaketen garrantzia, eta emaitzak oso antzekoak izan dira, diagnostiko bateratu bat daukagula esan dezakegu. Baita konponbide posibleak identifikatuta ere. Baina, errealitatea eraldatzeko bide horretan, ez dugu aurrera egitea lortu. Zergatik? Ze oztopo topatzen ditugu? Taldean daude? Gure baitan? Ziurrenik bieran.

3.2. Parte-hartzea

Zeri deitzen diogu parte-hartzea?

Parte-hartzeaz hitz egiten dugunean, ezin dugu ukatu horren kategorizazio bat egiten dugula. Parte-hartze eraginkorrena argia, arrazionala, hitzezkoa eta ordenatua izan behar da ezinbestean efektiboa izateko. Horrela ulertu izan

dugu militantzia esparru askotan, eta gainera, gizezkoek hartzen duten rola da gehienetan. **Hitzaren boterea** aitortzen zaie, eta diskurtsoen zilegiztatze bat ematen da, hitz egindako guztia jaso, mailakatu eta laburbiltzeko gaitasun ezkutu bat, bukaeran bota eta txapel moduan jarririk osotasuna lortzen duena. Emakumezkoen kasuan ordea, hitzezko parte-hartze hori ez da bapatekoa, arrazionalismotik aldentzen da askotan, bizipenetan oinarrituz, subjektu emozional kondenatu gisa. Gauzak bitan pentsatu, hori esatea egokia den zalantzan jarri eta norbere uste horretan konfidantza gutxi izan. Etengabeko zalantzan jartze horren zergatia argia da, parte-hartze eremuak maskulinoak direla eta emakumea arrazoiaren jabe ez denaren ideian sozializatu izan dela historikoki; beti bigarren plano batean kokatuz.

Kategoriazioa dago hitzezko hizkuntza nagusitu eta intelektualismoa ematen delako, non parte-hartzeko beste modu batzuk kanporatzen diren.

Bakoitzaren jardun militantea boteretzen duen mekanismoa da aipaturiko parte-hartze mota hori, eta zurruntasun horretatik kanpo geratzen diren eginkizunak baliogabetzen ditugu. Nor da gehienetan bilerak prestatzen dituen? edo dinamizatzeko ardura hartzen duena, hitzak banatzen saiatzen dena, akta jasotzen duena, datak buruan dituen edo hori garbira pasatzen duena? Prestaketari loturiko lana emakumeen esku geratzen da askotan.

Aipatu moduan, exigentzia mailak ere ezberdinak dira, espazio askotan, gizezkoak bere presentzia bermatzearekin jardun militante kupoa bete du. Emakumezkoen ordea, haien onena etengabe emateko eskatzen zaie, horretarako prest egon behar balira bezala, hala ez bada, haien eginkizuna zalantzan jarriz. Aitzitik, paternalismoz beteriko jarrerak hartzen ditugu emakume batek ez hitz egiteko erabakia hartu edo nahi ez duelako. **Emakumeen parte-hartzea momenturen batean lortuko den ahalduz baten ostean emango dela uste dugu, baina ahalduzaren ardura norberaren esku utziz, taldeak horretarako konpromiso edo ardurarik hartu gabe.** Ahalduz daiteke inor jarrera zapaltzaileen artean? Hala bada, zelan ulertzen dugu boteretzea, gure kideen marearen kontra igeri egiteko gaitasun gisa? Betebehar indibidual bezala? Zer eskatzen diogu taldean bere burua gutxiesten duen edonori, bera aldatzea, taldearen jarrerak eta funtzionamendua aldatu gabe?

Halaber, azkenaldian modan dauden gizon maskulino alternatiboak ere erdian sartzen dira emakumeren bat eroso ez dagoenean, horrela, inork eskatu gabe bere bozeramaile bihurtuz. Zenbat aita inguruan. Zenbat gizon hitz banaketa ekitatiboak egiten, parekidetasunaren banatzaileak izango balira bezala.

Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu lehenik eta behin parte-hartzeko eredu eta modu ezberdinen aitortza egin eta horiek deskategorizatzea, gu geu gara eta botere gehiago edo gutxiago ematen diogunak. Bestetik, mekanismo zehatzak jarri behar ditugu martxan parte-hartze horizontal bat emateko, espazio eroso bat sortu eta botere korrelazioak deuseztatzeko. Azkenik, gizon isildu pixkat!

Non parte-hartzea da kontuan hartzen dena?

Bileraz gain, **espazio publikoko parte-hartzea ere maskulinoa da**, eta oso gainera. Eredu pribatua ez bezala, ardura edo erantzukizun politikorik ez duen espazio moduan ulertzen dugu gainera. Parte-hartze maskulino basati bat ematen da eremu publikoan, protagonismo gose bat, botere zilegiztatze bat. Horren adibide ditugu ekimenak, manifestazioetan altu eta fuerte oihukatu behar duen gizona, turnoetako arduradunak, azpiegiturakoak, pintadak egiten dituenak, ez dakienaren inguruan hitz egin behar duena edota prentsurrekoaren aurpegia. Eta orduan... "E!E! itxoin! emakume bat falta da bengala eusten, prentsurrekoa irakurtzen, ukabila altxatzen edo udarako kanpainako kartelean..." eta emakumezkoen presentzia eskatzen dugu orduan. Gorputz baten presentzia hain zuzen ere, eta ez trebetasuna. **Emakumezko baten gorputza da bilatzen dena askotan, eta ez ordea, horretarako gaitasuna edukitzea**, horren inguruko ezagutza edo besterik gabe, neskak nahi eta horrela erabaki duelako. Kontraesan handia bilakatzen den kontua da azken hori: emakumeak espazio publikoan daukan presentzia eskaza indartu nahi, baina inondik inora ere ez objektu hutsal izanda. Azken hori da aldatu beharrekoa, emakumezkoa lehen lerroan dagoenean ez izatea soilik argazki soil batengatik, izan dadila atzeko lan guztietan ere parte hartu duelako, berak horrela nahi duelako, apustu politiko gisa; ekarpen kuantitatibotik kualitatibora jauzi eginez.

Espazioaren okupazioan, edo hori bereganatzeko orduan, umorea klabea da gizonezkoen artean. Emakumeok, umore hartzaile izan gara umore sortzaile baino gehiago. Zeri, noiz eta nola barre egin ikasi dugu. Nolako umorea da? Zergatik gaude batzuk kanpo? Kode maskulinoetan oinarritzen den umorea da etengabe espazio ezberdinetan errepikatzen dena, eta emakumeak zirkulu horren kanpoan uzten dituenak. Kode desberdinetan oinarritutako umore eta txisteak daude, baina hartzaileek bizipen edo ezagutzaren bat konpartitzea dute oinarrian: militantziari lotutako umorea ("iraultzak bilera batean harrapatuko gaitu!"), umore feminista, ikasketa desberdinei lotutako umorea... Baina espazioa guztiz baldintzatzen du zoritxarrez nagusia den umore horrek: gizonezkoek maskulinitate eredu hegemonikoaren bizipenen gainean sorturikoa da, eta beraz, kontsumo maskulinorakoa. Izan ere, Uxue Alberdik¹ dioen moduan erreferentziala da; eta konfiantza eta "taldekoa" sentitzea ezinbesteko abiapuntuak dira umorea egiteko:

"Erreferentzia komunitatik sortzen dira konplizitatea eta esperientzia konpartituak ematen duen batasuna, eta alderantziz. Erreferenteak (zerbaiti buruzko uste konpartituak) desitxuratzeak egiten digu grazia, eta erreferentea zenbat eta hurbilagoa eta ezagunagoa izan, orduan eta grazia handiago egingo digu. Gure sexuaren, adinaren, jatorriaren, ofizioaren... arabera, erreferente batzuk besteak baino hurbilagoak zaizkigu."

Beraz, gailentzen den umorea eksklusiboa izateaz harago, aliantza mekanismo moduan ulertu dezakegu, botere aliantza bat, hain zuzen ere, boterea dutenen arteko lotura edo euskarri. Finean, umorea onarpen tresna bat da, konplizitatea

eraikitzen du.

Argi dago umorea ez dela gizonezkoen jabetza eksklusiboa, eta umore maskulino hegemonikoa ez dela dagoen umore bakarra. Baina emakumeok umorez aritzen garenean, maiz zailtasunak izaten ditugu emakumezkoekin konpartitzen ditugun erreferente publikoak bilatzeko. Izan ere, gure uste eta bizipen asko ez ditugu publikoki konpartitu, izan tabuak direlako (horietako asko gorputzari lotuak: sexu-grina, masturbazioa, menopausia, hilerokoa...) edo garrantzia kendu diegulako: etxe barruko mundua, emozionalitatea, egunerokoa, emakumeen borroka, zaintza...

Adarjotzea oso ariketa sana eta askatzailea izan daiteke botere-harreman parekideetan, baina zapaltzailea eta krudela ere izan daiteke, hain zuzen bote-harreman desorekatuak mantentzeko eta berrezartzeko egiten daitekeelako. Ondorioz, jendartearen, espazio publikoan, arreta eta ikusgarritasuna umorearen arabera eskuratzen bada, alde zuzenetik baztertuak, zokoratuak gaude erreferente komunak maskulinoak izaten jarraitzen duten artean.

Askotan konturatzen naiz kideei zerbait eskatzeko, galdetzeko, abisatzeko.. bakarrik deitzen diedala, eta behin hori esanda, konturatzen naiz ez diedala galdetu ea zer moduz ezdakit zein azterketa, edo gaixorik duten ama... ez da ez didala inporta: azeleratuta noa, eta hanka sartu arte, ez naiz konturatzen. Gaizki sentitzen naiz gero.

Herriko taldean hasi nintzanetik, taldea eta taldeko hainbat pertsonen ardura bezela sentitu det, haiek zaintzeko ardura izango banu bezela. Ta zaintza eta harremanen kontu guztiak nere gain geatzen dia automatikoki. Ez deu taldean horren inguruan esplizituki hitzein eta ardura banatu.

4.

ZAINZA HIRUKOITZA

Militantzia ereduaren inguruan pentsatzen jardun dugu sarritan, oinordetzan jaso dugun militantzia ereduaz eta aurreratzean osatu nahi dugun militantzia ereduaz. Hartan, ezinbesteko ikusten dugu zaintza, eta nola ez, zaintza hirukoitza. Hori esatean, ni militantearen, taldearen eta proiektuaren zaintzaz ari gara.

Ni, militantea

Gure militante jarduna erabat baldintzatzen du norberak pertsona bezala sentitzen eta pentsatzen duenak, baita gure bizitzako arlo desberdinetan ditugun buruhausteez ere. Guzti horiek modu osasuntsu edota egoki batean bideratzea ezinbestekoa dugu, ongizate egoeran ondo funtzionatzen dugulako. Pertsona erdigunean jarriko duen funtzionatzeko era nahi dugunez ezinbestekoa da zaintza-praktika hau: autozaintza. Beraz, militantzian zehar sentitzen duguna eta bizitzen duguna kontuan hartu behar dugu arazoaren aurrean zein gertakari positiboaren aurrean, balio politikoa baitu. Hala ere, autozaintza ez dugu indibidualizazioarekin lotu behar, taldearen barruan eman daiteke eta.

Taldea

Pertsonak taldean bizi gara gure egunerokotasunean, beraz, espazio naturala dugu berez. Hala ere, ez digute erakutsi edota ez ditugu garatu taldean era osasuntsuan funtzionatzeko baliabide eta gaitasunak, sistemak guztiz kontrakoa bultzatzen baitu: kolektiboaren aurrean, indibidualismoa. Gure kasuan, militantzia jarduna talde baten baitan antolatzen dugu, eta jardun hori aurrera eramaten dugunean gure arteko harremanek, konfiantzak, elkar ezagutzak edota elkarren arteko gatazkek eragin zuzena dute. Guzti horiei arreta jartzeak elkarzaintza dakar, taldearen zaintzaren funtsa izanik. Oro har, **elkarren arteko harreman osasuntsuak, konfiantzak eta elkar ezagutzak taldearen funtzionamendu egoirako prebentzio gisa erabili behar ditugu.**


Taldearen baitan ardura desberdinek egon behar dute, batzuk denbora gehiago eskatuko dute, eta, beste batzuk aldiz, gutxiago. Eta maila desberdinetako ardurak egongo dira ziurrenik. Kontua da, norberak taldean hartzen duen ardurekiko konpromiso osoa egon behar duela. Egokia da taldeko kide bakoitzak ardura bat edukitzea. Horrek guztiak, talde izaera eta kohesioa sortzen lagunduko digu. Ezin ahaztu, talde batean gaudenean garrantzitsua dela norberak talde hori nola bizi duen jakitea eta besteekin konpartitzea. Zer da guretzako taldea?

Proiektua

Talde eta pertsona gisa lan egiten dugunean helburu batzuekin ari gara, helburu orokor batek batzen gaitu, proiektu politiko baten baitan. Batzen gaituen proiektu politikoaren gure sentitu behar dugu, kontziente izanda guk geuk osatzen dugula, hots, gure eskuetan dagoela. Eta, horretarako, garrantzitsua da gutariko

bakoitza. Guk zaindu behar dugu, eta zaintza horrek gure sentitzea ekarriko du, eta aldi berean, proiektuak gu garenaz asko izango du. Gutariko bakoitzak izugarri du emateko. Eta proiektuak ere izugarri ematen digu guri.

Zaintza hirukoitzaren oreka: apustu politikoa



Hiru elementu horiek ezin dira ulertu bata bestea gabe, errealitatean etengabeko elkar eraginean daudelako. Taldearen bizitzak zuzenean eragiten du militantearengan; gustura edo deseroso sentiarazi dezakeen arren, kide bakoitzaren izaerak (ezaugarriek) osatuko dute taldea. Gainera, taldearen funtzionatzeko erak proiektua baldintzatuko du, aldi berean, proiektua ulertzeko moduak taldean eragina du. Beraz, ikusten den bezala hiru elementuak triangelu moduan irudikatu behar dira.

Bestalde, hiru elementu hauen zaintzaren oreka ezinbestekoa da, nahiz eta batzuetan zaila izan daitekeen. Sarri emaitzari eman ohi diogu garrantzia eta ez gara ohartzen emaitza hori lortzeko prozesua nolakoa izan den, beraz, ez diogu kasurik egiten. Halaber, prozesua era osasuntsu batean ematea jada emaitza oso ona da, eta ziurrenik, eraginkortasunez egingo ditugu gauzak modu horretan. Prozesuan bertan zaintza hirukoitza orekan eman behar dugu. Hala ere, zaintza hirukoitzaren oreka iraunkorra ez da guztiz posible, izan ere, pertsona bakoitzak hiru elementuetako baten zaintza errazago egin dezake beste batena baino.

Beraz, gure erronketako bat da gauzak egiteko orduan prozesuari garrantzia ematea eta bertan zaintza hirukoitza orekan ematea. Oreka diogunean, hauxe esan nahi da: ezin da indar guztia pertsonaren jarduna norberaren behar eta gogoetara soilik bideratu, kontziente izan behar gara talde baten parte garela, ez gaudela gu bakarrik. Beraz, taldearen zaintza ere izan behar dela. Bestalde, taldeagatik indar gehiegi ematen ari bagara eta ni militantea ez badago ondo karga gehiegi duelako, jabetu behar dugu taldea osatzen dugunak pertsonak garela. Beraz, auto zaintza ere egon behar duela. Guzti horrek, proiektuaren nolakotasunean eragin zuzena izango duelarik.

Zaintza balioan jartzea feminismoak ematen digun gakoetako bat da. Gure ka-

suan, zaintza borrokarako tresna gisa ulertu behar dugu, politikoa baita. Zaintza ez dugu emakumeoi hala izateagatik zerutik erori zaigun praktika bezala ikusi behar, ezta konpromisorik eta ardurarik ez hartzeko aitzakiatzat erabili behar ere. Izan ere, **zaintza desnaturalizatu behar dugu, eta politikoki hautatu gure jarduna aurrera eramateko.**

Zaintza hirukoitzak gure militantzia jardunaren oinarrian egon behar du, zaintza praktikak ematen direnean, modu eraginkorrean lan egiten dugulako, eta gainera, gustura. Baina, pertsona baten ardura izan behar al da? Ez, noski ezetz. Sarri konturatu gabe zaintza nesken ardura bilakatzen da edota automatikoki neskek hartzen dute ardura hori, beraz, horren aurrean zaintza kolektibizatu (denona egin, partekatu) egin behar da. Zaintza-praktika kide bakoitzak beregain hartu behar du, kide bakoitzak zaintza hirukoitza aurrera eraman behar du. Izan ere, zaintza konpromisotik ulertu behar dugu, konpromiso pertsonala eta kolektiboa hartu behar dugu militantzian eta horrekin lotuta egongo da zaintza.

Azken urteetan bai Urrats Feministan Kaieren bidez, bai Ernaik zabaldutako espazio desberdinetan, zaintza hirukoitzak militantzian izan beharreko garrantzia asko landutako gai bat izan da. Zoritxarrez, oraindik ez dugu praktikan jarri.

Taldearen erritmoa jarraitu nahi edo ezin duena, berehala deskolgatuta geratzen da, egunerokotasunean ez dagoenarekin ez kontatzeko joera dugu eta. Noren egunerokotasuna, ordea, noren arabera neurtzen da? Fisikoki, non egotea da egotea? Zertan? Adibidez, egunerokoan Herrikoan poteatzen dagoena, ikasi behar duelako bileretatik zuzenean etxera doana baino gehiago izaten dugu kontuan. Baina agian bigarren honek denbora gehiago inbertitzen du militantzian lotutako gaietan pentsatzen. Ernairen kasuan, bereziki adibide argigarria dira astean zehar hiribururen batean dauden militanteak. Norbaitek garaien baten militantzia utzi behar duela dionean (dela behar duelako, ikasketengatik, gaixorik dagoelako, familiako kontuan, erasmusak...), zenbatetan egiten diogu jarraipena? Kontatzen dizkiogu gure egunerokotasun militanteko berriak? Itzultzen denean, egoten gara berarekin? Oso baztertzaileak dira gure erritmoak.

Egia da azken urteetan taldean egon daitezkeen arazo edo mikropolitikoen inguruan begiak zabaldu zaizkigula, eta asko izan direla horren inguruko lanketak talde moduan egin dituzten auzo eta herriak. Aurrera goaz! Baina beste kasu askotan, maila pertsonalean, individualizatuan, uzten jarraitu dugu, talkan zuzenean inplikaturik daudenek konpon dezaten!

Militante berriei harrera eta zaintza, gainerako taldekideekin hainbeste konfiantza ez duten kideen babesa... saio askotan atera izan diren ideiak dira, baina oraindik, ez daude gure praktika politikoan txertatuta. Normalean, aurrera ez doazen ideia onak dira.

Inplementazioa ez da erraza izan. Alde batetik, erresistentzia nabariak daude gaiarekiko. Militante batzuek, zaintza hirukoitza posible denik sinesten ez de-

lako; beste batzuek, orain arteko militantzia ereduaren prototipoa barneratuta, bere beharrianak identifikatzeko zailtasunak dituztelako; askok, diskurtsoarekin bat egin, baina praktikan nola jarri ez dakitelako; kontziente izan gabe ere beste batzuek zainduak direnez beharriana ikusten ez dutelako hainbatek... Bestetik, gauza asko errotik aldatzea suposatzen du, eta egunerokotasunaren zurrunbiloan sartuta, zaila da horretaz hausnartzea.

Gaia politikoa bada, espazio politikoak eskaini behar ditugu, esan bezala, ez terapia egiteko, erabakiak hartu eta neurri zehatzak martxan jartzeko. Ez da egun batetik bestera sortuko dugun egoera bat, egunez egun lortzen joango garena baizik.

Laburbilduz, zaintza modu kontzientean eta tresna gisa erabiltzea, esku artean dugun erronka potoloenatarikoa da, estrategiakoa baita gure militantzia jardunean.

Herriko taldian beste mutil bat ta ni (nexka) batea sartu ginan eta bea segituan integratu zan mutil taldera, lehenengo asteetan ia tabernan beaien borobilen eote zan. Kontuatu nintzan beaien artian konfiantzak azkar iteituztela eta neretzako zailagoa izan zan harremanetan sartzea. Ni ere ez naiz oso irekia, baina, hala ere, kontuatu nitzan oso kode desberdinak dauzkaula harremantzeko.

Konturatzen naiz gauza desberdinak erabakitzen dituztela euren (mutilen) artean, ez dakit noiz, eta bileran dagoena garatuta daudenean, tontakeria bat esaten edo, saiatzen direla ni horren konplize egiten, horren parte egiten bezala. Guzti hori hitz egiten egon direnean ni egon izan banintz bezala, baina ni baztertua sentitzen naiz. Eta eurek diote ez dutela nirekin kontatu gabe egiten, baina ez baldin badakite gaizki egin dutela, orduan zergatik saiatzen dira ni konplize egiten?

Kriston bronka eduki dezakegu, eta gero mutilak euren artean normal daude, txiste batzuk egin eta denak dira lagunak... baina ni ez naiz gai. Nik gorputza txarto daukat horrelako eztabaida baten ostean, ezin dut ezer gertatu ez balitz bezala egin.

Mutil izateagatik tribuaren parte sentitzen gara orokorrean. Baina gero, sexuari lotutako umorearekin, jarrera batzuekin... konturatzen zara batzuk beste batzuk baino tribukoagoak direla. Heterosexuala ez bazara, badagoela muga bat.

5. **ALIANTZAK**

Militantzia espazioak eta harremanak

Militanteok denbora asko pasatzen dugu elkarrekin: elkarlanean, bileretan eztabaidan eta hausnartzen, bidaietan, txandak egiten... eta horrek guztiak gutako bakoitzaren artean hariak sortzen ditu. Gure bizitzaren zati garrantzitsu bat konpartitzen dugu elkarrekin eta bizitakoak gure arteko harremanak definituko dituzte. Konfiantzazko harremanak, harreman formalak, harreman tentsoak, laguntasun harremanak... Zenbait kasutan, militantziak gure bizitzako lagunik onenak oparitzen dizkigu; eta, beste batzuetan, ikusi ere egin nahi ez genukeenarekin konpontzera behartu.

Militantzia eremu konpartituek harremanak sortzen dituzte eta harreman horiek izugarritzko garrantzia dute militantzia horren garapenean. Baldintzatu egiten dute: talde bateko kideen arteko harremanen arabera izan daitezke motibazioa, inbertitutako denbora, ilusioa, egiten ditugun apustuen tamaina, planteamenduen arrakasta... baina baita desilusioa eta utzikeria ere. Horregatik da hain garrantzitsua harremanak aztertu, landu eta zaintzea.

Asko dira harreman horien nolakotasunean eragiten duten elementuak: nondik gatozen eta non gauden, norberaren egiteko zein egoteko moduak, bakoitzaren pentsamoldea eta ideologia, aurreiritziak, bizipen edo gertaera zehatzak, kideen artean ematen diren botere harremanak... eta nola ez, generoak guzti hori zeharkatzen du. Sozializatuak izan garen generoaren arabera, bakoitza motxila batekin iritsiko gara harreman horietara. Aurreko urteetan landu dugun bezala, inposatu diguten generoaren arabera, ahotsa modu baten edo beste baten erabiliko dugu, espazioa gehiago edo gutxiago okupatuko dugu, hizkera bat edo beste erabili, gorputz adierazpen desberdinak garatu... eta taldean boterea egikaritzeko moduan eragin zuzena izango du horrek, baita botere harreman horien arabera gu taldean nola kokatzen garen ere; besteekiko nola sentitzen garen eta besteak gurekiko zelan sentitzen diren. Esan bezala, horrek harremanetan eragingo du, baina baita gure artean sortuko diren (edo sortuko ez diren) aliantzetan ere.

Hala ere, zeri deitzen diogu aliantzak militantzia eremuan? Kide desberdinen artean zerbait komunean edukitzearen ondorioz, helburu komun bat lortzeko sortzen den konplizitatea da. Konpartitzen dugun hori ideologia, lehentasun bat, kezka bat izan daiteke, edo lortu nahi duguna horri lotutako helburu zehatz bat. Baina aldi berean, komunean duguna genero inposatua izan daiteke, eta honen ondoriozko jarrerak zein ikuskerak.

Zapalkuntzek sortutako aliantzetatik...

Militantzia espazioetan, azken urteetan taldeen mikropolitikak aztertzean, orokorrean nesken artean zein mutilen artean konplizitate desberdinak sortzen direla ohartu gara. Konplizitate horiek aliantzak eragiten dituzte baina neska eta mutilen arteko konplizitateak ezaugarri desberdinak dituzte eta baita ondorio

desberdinak ere.

Mutilen artean nolabaiteko konplizitate edo harremantzeko modu bat garatzen dela ikusi ahal izan dugu. Lagunak izan ala ez sortzen den nolabaiteko konfiantza bat, kolegeo antzeko bat, kidea dena maila bereko, tribu bereko, bezala aitortzeko jarrera bat. Hitz egiteko, elkar ukitzeko (edo kolpatzeko), txantxak egiteko... moduan islatzen dena. Ez du zertan konfiantzazko harreman bat izan, baina nolabaiteko zirkulua eratzen du, gizonak bakarrik barnebiltzen dituen zirkulu bat. Zeresanik ez, maskulinitate eredu hegemonikoa erreproduzitzen duten mutilak daude zirkulu horren zentroan, beste batzuk kanporago (edo guztiz kanpo) dauden bitartean.

Konplizitate hau gune formaletan zein informaletan, baina batez ere azken hauetan, garatzen da. Eta, esan bezala, ondorioak ditu. Alde batetik, gizonen arteko harremana indartu, eta militantzia eremu formaletan berez dituzten pribilegioen ondoriozko boterea indartzen du. Bestetik, gune informaletan militantziari lotutako gaiak eramateko joera dugun heinean, bileretatik kanpo erabakiak hartzeko nolabaiteko zilegitasuna ematen diete euren buruei, berriro ere, gune formaletan eraginez. Azkenik, konplizitate horrek harremanak indartzen ditu eta edozein mehatxu edo kritikaren aurrean elkar babestea ekartzen du.

Nesken artean sortzen den konplizitatea, ordea, neska izatetik baino, mutilez inguratutako neska izatetik dator. Kasu askotan, kontzientzia feministak indartutako konplizitate bat da. Azken batean, formakuntza eta boteretze feministaren ondorioz, espazio hauetan neska izate hutsagatik bizi ditugun zapalkuntzei izena jartzen diegu, baita hauei aurre egiteko aliatu potentzialak identifikatu ere. Mutilekin pasatzen den bezala, askotan konplizitate hau ez da laguntasun harreman bat, momentu puntual batean nolabaiteko babes batzuk. Erasoen eta hauen ondoriozko frustrazioen aurrean elkar ulertze bat, enpatia. Ahizpatasuna deitu dezakegu? Bestalde, espazio formaletan ematen da batez ere, Konplizitate honek ondorioak izan ditzake, nola ez, baina espazio formaletan benetan eragina izan dezan, aliantza hori eraiki behar da, babes sententziazotik harago, hausnarketa eta erabakietara jauzi egitea ezinbestekoa da. Deigarria da, emakumeon arteko konplizitate edo aliantza hori bereziki nabarmena dela feminismoarekin zerikusia daukaten gaietan, eta zergatik ez beste kontu batzuen inguruan?

Era berean, bi aurpegi ditu konplizitate horrek: alde batetik, egia da gizonen inguratuta gauden espazioetan babes sententziazotik ematen digula, bakarrik ez egoitearena. Baina bestetik, emakumeon artean beti konplizitate hori existituko dela aurreuposatzen da. Horrela, neska batek arazoren bat duenean, beste neska baten esku geratuko da berarekin hitz egitea, euren arteko harremana nolako den kontuan hartu gabe (gaizki konpontzen direla agerikoa ez bada behintzat).

Orain arte maskulinizatuak izan diren eremuetan gutxiengoa izateagatik, edo gutxiengoa ez bagara ere, gutxietsiak izateagatik sortutako aliantza izaten da gehienetan, beraz. Baina elkarrekiko elkartasuna sentituzetik harago, nesken arteko harremanak ez dira beti aliantzazkoak izaten. Sistema kapitalista heteropatriarka-

lak gure arteko lehia sustatzen du, elkarren konpetentzia garena sinestaraziz, eta neska militanteok, zoritxarrez, sarritan ez gaude zurrumbilo horretatik at. Batzuetan gure harremanak lehia eta enbidiaz kutsatuta egoten dira: nor den gehiago baloratua, nork egiten duen gogorren lan... Aipatutako elkartasun horren oinarri den feminismoa ere ez da libratzen: batzuetan "feministagoa" nor den lehia ere sortzen da, hainbatetan "feministometroa" deitu den hori erreproduzitzen.

Argi dago, neska eta mutilen artean ere harreman estuak sortzen direla militantzia eremu bateratuetan. Gauza askok batzen gaituzte. Baina eremu hauetan egozten zaizkigun rolen ondorioz, harreman eredu patriarkalak eta heterosexuallak erreproduzitzeko joera dugula ikusi dugu: harreman hauetan emakumeen papera zaintzari begirakoa da ("taldearen ama"-ren figura), gizonak emakumeekiko garatzen dituzten rolek askotan gehiago dute paternalismotik kamaraderiatik baino, "gudariaren" figura maskulinizatua...

...hau politikoetan oinarritutako aliantzetera!

Orain arte aipatutako aliantzen oinarria ezaugarri komun batzuk konpartitzea da: ezinegonak, lehentasunak, izaera... Kasu askotan zapalkuntza berdina bizitzeak konplizitateak sortzen ditu. Naturalak ez badira ere, naturalizatu egiten ditugu: "emakumeak gure artean hobeto konpontzen gara, gizonak euren artean bezala". Baina, zergatik?

Hasieran esan bezala, aliantzak helburu bat lortzeko garatzen dira, berau kontzientea izan ala ez. Neska bat bilera espazio batean erasotua izaten ari denean, normalean genero bereko beste kide batzuekin begirada konplizeak gurutzatzen dituenean, askotan inkontzienteki babes bila dabil. Era berean, euren kabuz gune informaletan taldearentzako planteamendu bat garatu eta bileran bloke bat osatuz aurrera ateratzea bultzatzen dutenean, aliantza hori ez da hitzez adierazten, oharkabean garatzen da. Edonola ere, aliantza horiek ondorio batzuk edo beste batzuk dituzte.

Horregatik, nolako aliantzak eta zertarako nahi ditugun hausnartu beharko genuke, eragiten duten horrek guk aurrez jarritako helburuei erantzun diezaien.

Esaterako, eremu mistoetan jarduten dugun emakumeon artean isileko babes paktu bat baldin badaukagu, zergatik ez ditugu horri buruz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko espazioak sortzen? Elkar babestetik, elkarrekin ofentsibara pasa, guztion artean erabakiak legitimatuz militantzia eremu parekideagoa lortzeko? Orain arte naturalizat hartu ditugun konplizitateak modu kontziente batean eragiteko aliantza feminista bilakatu behar ditugu.

Horretarako, espazio militanteak konpartitzen ditugun nesken artean, zein beste espazio batzuetan dabilzanekin eraiki behar ditugu espazio eta aliantzak. Horrela, barrutik eragiteko estrategiak diseinatzeaz gain, kanpotik ere gure zentzu berean indar egingo duten kideak bidelagun izango ditugu.

Nesken artean aliantzak eraiki behar ditugun bezala, garrantzitsua da gizonzkoek euren pribilegioak indartzen dituzten aliantzak deseraikitzea. Konplizitate hori norberak baliatzen dituen pribilegioak identifikatzeko, eta hauei uko egiteko erabiltzea. Horrek gizonen arteko kolegeo gune horien eta bertan sortzen denaren inguruan hausnartzen jartzea, kontu desberdinak aurrera eramateko norngana jotzen dugun (eta zergatik) zalantzan jartzea... Garrantzitsua da mutilek beraien arteko aliantza hori pribilegioei uko egin edo zapalkuntzak geldiarazteko baliatzea. Izan ere, aurreko Kaieran pribilegioen identifikazioarekin hasi ginen baina bide luze bat egin behar dugu oraindik hauei uko egiteko. Eta lan hori errazago egingo dugu elkar mutil guztion borondate eta jarrera orokortua baldin bada. Lanketa hori ganoraz egin ezean, arriskua dugu pribilegioak "zama" bezala izendatzeko ("mutila naizenez behartuta nago beti inizatiba edukitzera, eta oso nekagarria da"), biktismoan jausteko, benetan dauden egoerari erreparatu gabe: botere harreman baten posizio pribilegiatuan egotearen ondoriozko eskubideak.

Aliantzek berebiziko garrantzia dute boteretze eta ahulduntze prozesu hauetan. Azken batean, eraldaketa feministak dimentsio indibiduala zein kolektiboa ditu: norberak urratsak eman ditzake, baina topatuko ditugun oztopoei, nekez egin ahalko diegu aurre kideen laguntza eta babes gabe.

Prozesu feministak asko eman digu, bai antolakunde moduan zein maila pertsonalean ere. Eman dizkigu tresnak, erreferenteak eta edukiak, baina baita militantzia eta gure egunerokotasuna ulertzeko eta astintzeko gakoak ere. Beraz, gozatu gaitezen, askatu, erotu, borrokatu eta lehertu, feminismotik bakarrik egingo dugu eta iraultza.

Prozesu feministarekin bereziki garrantzitsua zen zerbait egiten ari ginela sentitu dugu. Hormak hausten geundela, bide berri bat zabaltzen. Garai-pen askoren ataria izaten ari dela.

Bildu indarrak hurrengo urratserako!

Gure feminismoarekiko apustua, konpromisoa, benetakoa da. Horregatik, ez da liburuxka honetan bukatzen. Horrek ez du esan nahi ezta ere liburuxka hau tresna harturik jarraituko duenik, ala bai... dena dago erabakitzeke.

Hasi dugun bideak jarraipena merezi du eta antolakunde feminista izateko xedeak, hala eskatzen du. Argi da duela lau urte hasitako Barne Prozesuak jarraipen bat behar duela, edo beste gauza bat da behar duguna. Zer, ordea? Hasieran aipatu dugu Urrats Feminista hau hasiera besterik ez dela, hasiera on bat edonola ere eta orain arte oinarri feministak ezartzeko egindako lanak, aukera berriak zabaltzen ditu gure aurrean. Taldeetan ematen diren rol banaketa, botere harremanak, gutiezpenak... epe laburrean gainditu beharreko okerrak dira eta horretarako beharrezkoak diren neurri guztiak martxan jartzeko zilegitasuna izateaz gain, premia ere badugu. Autsartak izan behar gara, feminismoa prozesuetako saio isolatuetatik atera eta egunerokotasunean txertatzekoa.

2.Kongresuan, antolakuntza eta funtzionamenduari dagokionez ikuspegi feministari egokitutako aldaketak egingo ditugu: figura berriak sortu, parte-hartzeko mekanismo kolektiboak gure jardueretan barneratu... hauek pausu bat gehiago izango dira ondo bidean.

Urrats garrantzitsua eman dugu: kontzientzia sortu, ahaldundu, feminismoa lehen lerrora ekarri. Urrats horiek atzeraezin bihurtzeko erronka dugu orain: atzera goaz aurrera ez bagoaz!

Guztion ardura da orain hurrengo urratsak zeintzuk izan behar diren irudikatzen hasi, eta eztabaidatzea.

METO DOLO GIA

Metodologia egun erdiko bi saiotan banatutko dugu: lehenengoa, taldearen eta norberaren jarreraren azterketara bideratutakoa, eta bigarrena, talde eta norabako bezala militantzia feminista bat erdiesteko, gure utopiarako eman beharreko urratsak definitzeko.

1. Norberaren eta taldearen jarrerak aztertzen

 4 ordu, 10 min

Ariketak

1. Okaren jolasa (ordu 1)

Ariketaren helburua: Taldearen testuinguruan ematen diren rol eta jarrerak identifikatzea.

Beharrezko materiala: Orri zuriak, margoak, kartoi zati handia (tableroa egiteko).

Ariketaren azalpena: Esan bezala lehenengo ariketa honetan, egoeraren identifikazio edo analisia egitea izango da helburua, horretarako ezinbestekoa da, tokian tokiko egoerari aurre egitea, hau da, norbere testuinguruetan ematen diren rol eta jarreraren inguruko hausnarketak egitea. Jakin badakigulako, egoera eta testuinguru unibertsalik existitzen ez direla.

Gauzak horrela, ariketa honetan egin beharreko lanak hurrengoak izango dira, lehenik eta behin gure testuinguru militanteetan ematen diren rol eta jarrera desberdinak identifikatu. Ez dugu zertan guk gorpuztu behar, besteek dituztenak ere izendatu genitzake.

ADIBIDEA

- Supermilitantea.
- Militante apatikoa.
- Soilik publikoan egiten diren agerraldietara datorrena.
- Kartelak jartzen dituena.
- Bilerak akaparitzen dituena.

Egoera gehiago identifikatzeko, jarri zaitez zure militatzian pentsatzen, bilera guztietan rol berbera izan duzu? Rol horrekiko besteon jarrera zein izan da? Eta beste kideen rolak?

Ariketa honetan egin beharreko lanik garrantzitsuena hau da, kontuan izan identifikazio eta analisirako ariketa dela.

Lan hau eginda, oka jolaseko kasilletan identifikaturiko rol eta jarrera desberdinak jarriko ditugu, eta beste paper zati batzuekin tapatu egingo ditugu. Eta jolasten hasiko gara.

JOLASTEKO AHOLKUAK

1. Tableroko kasila bakoitzean aurrez identifikatutako egoerak jarriko ditugu.
2. Okako kasilak tapatuta egon beharko dira, eta zenbakiz markatuak.
3. Kasila baten jauzi ezkerreko, mimikaz egoera hori gorpuztu beharko duzu.
4. Parteideek mimikaz egindako egoera asmatu beharko dute: ez baduzu lortzen, ezin dezakezu aurrera egin.
5. Guztiok heldu behar gara amaierara.

Behin denok bukaerara iritsita, galdera hauei erantzungo diegu denon artean:

1. Identifikatua sentitu zara rol edo jarrera batekin?
2. Uste duzu jarrera edo rol guztiak beharrezkoak direla taldea?
3. Zergatik ematen dira rol edo jarrera horiek?
4. Zelan ahalbidetzen du taldeak jarrera edo rol horiek ematea?

**tableroa nahi dugun forma eta tamainan egin genezake*

2. Zergatietan sakontzea (30 minutu)

Ariketaren helburua: Parte-hartze desorekak identifikatu eta bertan ematen diren rol ezberdinen zergatietan sakontzea izango da.

Beharrezko materiala: Orri zuriak eta boligrafoak.

Ariketaren azalpena: Bost hiruki marraztuko ditugu paperean, eta hiruki bakoitzaren erdigunean 4. kainera honetako bloke bakoitza ipiniko dugu (Balioan jartzen ditugun militantzia rolak, lan banaketa, parte-hartzea, zaintza eta aliantzak).

> Lehen erpinean, blokearen eta testuinguruaren araberrako egoera azalduko dugu, hau da, "Zer gertatzen da bertan?".

> Bigarren erpinean gure jarrera aztertuko dugu, eta horretarako hiru posizio proposatzen ditugu.

- Ni iraultzaile (gune edo egoera horretan ematen diren desorekei aurre egin eta gaitzen saiatzen naiz).

- Ni erreproduzitaile (gune edo egoera horretan ematen diren desoreken erreproduzitaile naiz).

- Ni mugatzaile (ni neu naiz egoera edo gune hori mugatu eta desoreka hori eragiten duena).

> Hirugarren erpinean zergatia ipiniko dugu, hau da, gune edo egoera horretan desoreka horiek ematearen arrazoiak zein dira? Zein da aurreko

erpinean identifikatutako nire rola-ren zergatia? Garrantzitsua da azpimarratzea azken hau ez dela gure buruak justifikatzeko ariketa izango, ematen diren botere-harremanen zergati sakonago bat egiteko bitartekoa baizik.

Zenbateko presentzia izandu generoak desoreken zergatien identifikazioan? ateratakoaren arabera eztabaidatu.

3. Nola bizi dut zaintza? (30 minutu)

Ariketaren helburua: Herriko/auzoko taldean duzuen zaintzaren inguruko hausnarketa eta diagnosi txikia egitea.

Beharrezko materiala: Orri zuriak eta koloretako margoak.

Ariketaren azalpena: Bakarka jarri eta bakoitzak eroso dagoen txokoa hartu dezala orri txuri batekin eta margo batzuekin. Dinamizatzailer batek gidatuko du ariketa honakoa esanez:

Nahi duzun neurri eta koloretan, margotu ezazu zuhaitz bat orri txurian, sustraietatik hasi eta hosto eta loreetaraino. Bitartean, jarraian esango diren hausnartzeko galdera batzuei erantzuten joan, zu eta taldea loratzeko atzean zer dagoen eta zer ez ikusteko eta hausnartzeko balioko dutenak.

Zuhaitzak sustraiak beharrezko ditu loratzeko eta ez erortzeko, lurretik eta sustraietatik barrena iristen zaizkio bizitzeko beharrezko indarrak! Oinarri sendoa dagoenean loratzeko prest egoten gara, beraz, goazen talde dinamika osasuntsuak izatera!

Hausnartzeko eta erantzuteko galderak: (zuhaitzaren alboan idatzi)

- Nire burua zaintzen dut?
- Zaintza-lanak egiten ditut?
- Zaindua sentitzen naiz? Nork hartzen du ardura ni zaintzeko? talde osoak edota pertsona batek?
- Nork hartzen/egiten ditu gustatzen ez zaizkidan ardurak/gauzak?
- Militantzian eroso sentitzen naiz? Zer egiten dut eroso sentitzeko? Zer egiten du taldeak ni eroso sentitzeko?
- Zer egiten dut nik besteak taldean eroso sentitzeko?

4. Nola dago zaintza taldean? (30 minutu)

Ariketaren helburua: Herriko/auzoko taldean garrantzia zerri ematen zaion eta zerri ez identifikatzea.

Beharrezko materiala: Orri zuriak eta boligrafoak.

Ariketaren azalpena: Gure herriko/auzko taldean, hainbat alderdik garrantzi gehiago edo gutxiago izango dute zihurrenik. Jarraian zerrendatuko diren alderdiak era osasuntsuan eta talde mailan kudeatzea ezinbestekoa da taldearen zaintzari erreparatzen badiogu. Jarri talde txikitan eta hausnartu zenbateko garrantzia ematen zaion zure taldean alderdi guzti horiei (adibidez, 0-10erako eskala batean), ondoren plenarioan jarri:

- Komunikazio kanalak (emaila, whatsapp, ahoz ahokoa...)
- Asanbladak edo taldearen dinamika
- Aniztasunaren kudeaketa (iritzi desberdinak, pertsona oso desberdinak...)
- Mimoak eta hurbiltasun emozional zein fisikoa (kontaktu fisikoa, egoera pertsonalen ezagutza...)
- Ausentziak
- Denbora
- Aktak
- Kideen arteko sexua, rolloak...
- Momentu informalak (afari edo bazkariak, parrandak, kafeak...)
- Harrerak/agurrak

Plenarioan jarri baino lehen taldean egiteko ariketa: Borobil batean jarri eserita eta taldeko pertsona kopuruaren erdia aterako da borobil erdira (zutik). Pertsona horietako bakoitzari zenbaki bat emango zaio (adibidez, 6 pertsona badaude: 1,2,3,4,5,6), baina ezin dute jakin zein den besteen zenbakia, soilik berea jakin behar dute. Ondoren, borobilaren erdian ibiltzen hasteko esango zaie, bakoitzak nahi duen norabidean, eta azalduko zaie eman zaien zenbaki ordenan (1etik hasita) bere burua lurrera botatzen hasi behar dutela (bizkarraldetik eta ipurdiz) beste borobil barruko pertsonek hartzeko (esku eta besoekin) eta ia lurreraino jaisteko, lurra ukitzeko gutxi falta denean gora altxa dezaten denek batera. Beraz, bere burua lurrera erortzen lehenengoa 1 zenbakia duen pertsona izango da eta ondoren, 2 zenbakia duenak berak ikusten duenean bere burua botako du, horrela borobileko pertsona guztiak bota/erori arte. Txanda horretan erortzea tokatzen ez zaien pertsonak, ibiltzen ari diren bitartean, adi-adi egon beharko dute erortzera/bere burua botatzera doan pertsona hartzera edo eustera joateko berehala.

Egindako ariketa komentatuko da. Laguntzeko galderak:

- Nola sentitu zarete zuen burua bota eta besteak zure atzean jarri eta hartu zaituztenean?
- Kostatu zaizue segurtasuna sentitzea? Ala guztiz seguru sentitu zarete?
- Kanpotik ikusten aritu zaretenak, zer aztertu duzue? Zerk eman dizue

atentzinoa?

Talde handian: taldean hitz egiteko bakarka egindako ariketan hausnartutakoak balioko digu, taldean galdera hauen inguruan hitz egingo dugu:

- Nola dago zaintza gure taldean? Nola dago gure taldea? Behar dugu zaintza?
- Nola nahi dugu egotea zaintza gure taldean? Zertarako nahi dugu? Konpromiso kolektiboa/pertsonalak hartuko ditugu aurrerantzean zaintzak taldean izango duen paperaren inguruan.

5. Nondik datoz aliantzak? (40 minutu)

a) Lehen zatia pertsonala izango da. Norberaren ariketa izango da, eta ez ditugu edukiak konpartituko, ondorioak bakarrik. Bakoitzak folio bana izango du, eta 15´ izango ditu gainerako taldekideekin ditugun harremanak aztertu eta azalduko diren grafiko edo marrazkietan irudikatzeko. Horretarako bi grafiko egingo ditugu.

1. Lehenengo grafikoak gure bizitzako esparruak adieraziko dugu. Borobil bat marraztuko dugu erdian, eta hori militantzia eremua izango da. Ondoren, esparru gehiago adierazten dituzten borobilak egingo ditugu: enplegua, ikasketak, koadrila, familia... jarri nahi dugun edozein. Borobilen posizioarekin, tamainarekin zein beste ezaugarri batzuekin jolas dezakegu errealitatea adierazteko: enplegua den borobil handiak gainerakoak jaten ditu, familia txikia da eta zentrotik urrun dago... Era berean, borobilen artean harremana egon daiteke: borobil horiek militantzia ukitu dezakete, pertsonak komunak badaude espazioa konpartitu...

2. Bigarren grafikoan, gure burua paper batean margotuko dugu, baita gainerako taldekideak ere, orri osoan zehar sakabanatuta. Ondoren, geziekin eurekiko harremana adieraziko dugu, geziaren formarekin jolastuz: gezi sendoa, gezi luzea urruntasuna adierazteko, forma aldakorra duen gezia, norabide bikoitzeko ala bakarreko geziak, gezi gorabeheratsuak, gezi mingarriak... askatu irudimena!

b) Bakoitzak bere ariketa egin eta horrek militantzian eduki ditzakeen ondorioen inguruan hausnartu duela, taldean hurrengo galderen inguruan hausnartuko dugu (25´):

1. Ze lotura identifikatzen ditugu bi grafikoen artean? Eraginik dute bata bestean?
2. Ze genero nagusitzen da eremu bakoitzean?
3. Aliantzen taulan, zirkulu bakoitza zergatik eta zertarako?

6. Aliantzak: eraldatzeko ala boterea mantentzeko? (ordu 1)

Ariketa honen lehen atala neskak eta mutilak bereizita egingo dugu, eta behin hausnarketa batzuk emanda, berriro ere elkartuko gara.

1. Nesken kasuan: Bakoitzak 4 post-it hartuko ditu. Batean, beste kide batzuen aliantzen ondorioz kaltetua edo mindua noiz sentitu garen idatziko dugu. Bigarrenean, noiz sentitu dugun babes edo konplizitate sententzio bat bai egon dela, baina ez dela gauzatu edo ez duela eraginik izan. Hirugarrenean, aliantza desberdinetatik kanporatua noiz sentitu garen. Azkenengoan, aliantza bat egon dela eta zu onuraduna izan ez zarela noiz sentitu duzun idatziko dugu. (5')

2. Mutilen kasuan: Bakoitzak 3 post-it hartuko ditugu. Lehenengoan, ditugun aliantzen ondorioz babestua noiz sentitu garen idatziko dugu; eta, bigarrenean, noiz kanporatua. Hirugarrenean, ordea, noiz utzi dugun norbait aliantza horietatik kanpo, ondorioekin. (5')

** Taldeko gizonen artean biktimizazioarako joera badago, ez dezatela kanporatuak noiz sentitu diren atala bete, aliantzen ondorioz babestuak noiz izan diren erantzutea soilik.*

Ondoren, bakoitzak bere lantalde espezifikoan, bizipen guztiak konpartituko ditugu, hurrengo kontuei erreparatuz(30'):

> Antzekoak izan dira? Nola sentitu ginen? Zeintzuk dira antzekotasun nagusiak?

> Noren arteko aliantzek sentiarazi gaituzte gaizki? Arrazoi hori aurrez identifikatuta genuen, edo gerora?

> Zertarako erabili izan dira/ditugu aliantzak? Zein izan du gure jarrera? Eta besteena?

> Aliantza horiek ematen zuten botereaz kontziente izan gara?

> Beranduago horri lotutako lanketaren bat egin dugu? Zer aldatuko genuke?

> Gaia landuta badugu ere, egoera aldatzeko zerk blokeatzen gaitu? Zeintzuk dira "elkartasun" hori ez gauzatzeko arrazoiak? Talde bezala ze erantzun eman nahi diogu hemendik aurrera?

> Zer aldatuko genuke/dezakegu edukitako jarreraz? Hemendik aurrera nola egingo dugu, ze konpromiso hartuko ditugu?

Azkenik, plenarioan jarri eta bakoitzean ateratako ondorio nagusiak botako ditu bozermaile banak. Denbora ianez gero, apur bat hitz egingo dugu ateratako egoeren zein bitzako sentipenen inguruan (25')

2. Utopia militanterantz

 4 ordu

Ariketak

1. Aldatuko nuke... (ordu 1)

Ariketaren helburua: Talde gisa ditugun hutsuneak identifikatzea, aurreko saioetan landutakotako elementuak edo berriak azaleratuko dira. Eta identifikatutako horiek lehentasunaren arabera ordenatzea.

Beharrezko materiala: Paper handi bat, bi koloretako gometsak, errotulkiak.

Ariketaren azalpena: Bi parte izango ditu dinamikak: lehenengoa, identifikazioari bideratutakoa eta bigarrena, lehentasunak ezartzeari begirakoa.

a) Borobil bat osatuko dugu gure aulkiekin eta bertan eseriko gara guztiok bat izan ezik; bakar hori erdian paratuko da. Erdian dagoen lagunak talde horretatik aldatu nahiko lukeena zer den zehaztu behar du, gustatzen ez zaiona identifikatu. Horretarako, erdian dagoen pertsona honela hasiko da: "Nik aldatuko nuke..." eta talde horretatik gustatzen ez zaion elementu bat zehaztuko du. Adibidez, "Nik aldatuko nuke gure arteko lan banaketa desorekatua". Erdian dagoenak esan duen horrekin bat egiten duten guztiak aulkitik jaiki eta lekuz aldatu beharko dira ahalik eta azkarren, eta erdian dagoena aulki bat lortzen saiatu beharko da. Horrela, erdian dagoen pertsona txandakatuz joango da eta aldatu beharreko ideia ezberdinak zein hauekiko atxikimendua nabarmenduko da. Garrantzitsua izango da parte-hartzaile guztiok hutsune bakoitzaren aurrean zenbat pertsona lekualdatzen diren erreparatzea.

Ikusten badugu borobilean ez direla aurreko saioan agertutako elementu guztiak/asko plazaratu (dinamizatzaileak horiek aurrez zerrendatuta izango ditu), ariketa osagarri bat egingo dugu identifikaziorako. Dinamizatzaileak borobilean aipatutako elementuak eta aurreko saioan azaleratutakoak

zerrendatuko ditu paperezko mural handi batean eta parte hartzaile bakoitzari bi koloretako gomets bana banatuko diogu; kolore bat lehenetsun gehien daukan hutsunea markatzeko izango da eta bestea gutxien daukana. Kolorezko mapa honen bidez, gure lehenetsunak zein diren begiratu batean antzemango ditugu.

b) Behin hutsuneak eta lehenetsunak identifikatuta, talde eztabaidari ekingo diogu. Horretarako bi talde osatuko ditugu: alde batetik mutilak, eta bestetik neskek. Talde bakoitzak beste generoko behatzaile bi izango ditu. Hau da, nesken talde eztabaidan bi mutil behatzaile egongo dira, eta alderatuz. Behatzaile hauen papera eztabaidaren behaketa egitera mugatuko da: zein adostasun izan diren, egondako talkak, nork parte hartu duen, nola parte hartu den...

Behin talde eztabaidak eginda, behatzaileek talde eztabaidan ikusitakoa azalduko dute eta emaitzak talde handira ekarriko dituzte. Genero aldetik diferentziarik ote dagoen aztertuko dugu eta horren zergatiak identifikatzen saiatuko gara. Ostean, guztion artean lehenetsunezko hutsuneak zein diren adostuko dugu.

Taldea txikia bada, ez gara bananduko neska eta mutilen artean eta bi behatzaile zehaztuko ditugu zeinak generoaren aldagaiaren arabera eztabaidaren jarraipena egingo duten. Mutil edo nesken arteko taldea desorekatua bada, talde eztabaidak aldi berean egin ordez, bata bestearen atzetik egin ahal ditugu; horrela behatzaileek ere eztabaidan parte hartu dezakete. Talde batek eztabaida egiten duen artean, besteek atsedenaldia egingo dute, eta alderantziz.

2. NI + NI (talde kide kopuruaren araberakoa)

Ariketaren helburua: Taldeak niri buruz daukan iritzia positibo eta negatiboa zein den ezagutzea.

Beharrezko materiala: Parte hartzaile bakoitzarentzako sobre bat, papera, boligrafoak.

Ariketaren azalpena: Helburu hori betetzeko bi ariketa ezberdin proposatzen ditugu, bata ala bestea egin, dinamizatzaileon erabakiaren esku geldituko da. Lehenengoa motzagoa da bigarrena baino, baina, talde kide kopuruaren araberakoa izango da ariketaren luzera. Hala ere, bien arteko nahasketa egin dezakezue.

A aukera) Parte hartzaile bakoitzak bere parean sobre huts bat izango du. Beste taldekideak sobre horietan sartuko dituzte jabeari buruzko ezaugarri positibo eta negatibo bana adierazten duten papertxoak. Modu anonimoan. Guztiok, guztioi buruzko iritzia eman beharko dugu. Horrela,

azkenean, bakoitzak bere sobrea taldekideen iritzi baikor eta ezkorrekin Beteta izango du. Behin guztiok iritzia emanda, altuan irakurriko dugu sobre barrukoa.

B aukera) Bakoitzak, gainontzeko taldekideei buruzko bertute eta hutsune bana idatziko du papertxo batean eta erdira botako du; parte hartzaile bakoitzeko alde positibo eta alde negatibo bana idatzi ahal izango dugu. Ondoren, txandaka erditik paper bat aterako dugu, ozen irakurri eta taldekide bati esleituko diogu hor idatzitako ezaugarria, gure zergatia azalduz. Adibidez, paper batean “emakume izateagatik gutxiesten gaitu” irakurtzen badugu, ondoren esleipena eta arrazoiketa egingo dugu: “Nik uste dut hau Mikeli idatzi diotela, niri behin XXX egin zidalako eta horrela sentitu nintzelako”. Beste guztiek zerbait gaineratu nahi izanez gero, hala egiteko aukera izango da.

3. Zer da guretzako zaintza? (40 minutu)

Ariketaren helburua: Zaintzari buruzko talde eztabaida ematea eta guk gustura lan egiteko nolako zaintza behar dugun definitzea.

Beharrezko materiala: Zaintzaren alderdi ezberdinak adierazten dituzten papertxoak inprimatuta. Adibideak: bilerez gain, espazio informalak izatea (kafeak, afariak...), bileraren hasieran zer moduz gauden adierazteko erronda, urtean bi aldiz taldeari eskainitako egun pasa egitea, bilerak amaitzean lan-banaketaren erreposoa egitea, gai ezberdinekiko dauzkagun kezkek edo ulertu ez dugun zerbait galdetzeko tartea uztea...

Ariketaren azalpena: Zaintzaren alderdi ezberdinak adierazten dituzten paper zatiak izango ditugu inprimatuta, eta guztion artean irakurriko ditugu. Horiek, zaintzaren argazki osatuago bat izaten lagunduko digute ondorengo eztabaidan lagungarri izango zaiguna. Dinamizatzaileak zaintzari buruzko talde eztabaida sustatu beharko du ondoko galderak lagungarri dituela:

- Zaintzari buruz mintzo garenean gauza berataz ari gara? Zer da zehazki bakoitzak buruan daukana? Zer botatzen dugu faltan, eta zer baloratzen mantendu nahi dugu?

- Talde honek ondo funtzionatzeko eta gutako bakoitza gustora egoteko, nolako zaintza behar dugu? Saiatu gaitezen ahalik eta zehaztasun handienaz definitzen.

- Zein bitarteko jarriko ditugu zaintza behar hauek bermatzeko?

4. Aterabideak sortzen (45 minutu)

Ariketaren helburua: Lehenengo ariketan identifikatu ditugun lehentasunezko hutsuneei buelta emateko aterabideak proposatzea eta adostea.

Beharrezko materiala: Lehentasunezko hutsuneak idatzita dituzten kartulinak, papera eta boligrafoak.

Ariketaren azalpena: Lehentasunezko hutsuneak adierazten dituzten kartulinak paretan jarriko ditugu. Parte hartzaile bakoitzak lehentasunezko hutsune bakoitzari konponbidea emateko hiruna aterabide pentsatu beharko ditu. Aterabide horiek hiru karratutan moztu beharko ditu eta ondoren, hutsune bakoitzaren gainean, mailakatu egin beharko ditu proposamenak; egokia iruditzen zaiona kartulinako hutsunetik gertuen itsatsiko du, eta bere irudikoz ahulena dena hutsunetik urrunen. Horrela egingo dugu, guztiok hutsune bakoitzari hiru soluzio eman arte eta behin hori egindakoan, taldekideen proposamenak ezagutzeko tarte bat hartuko dugu. Azkenik, proposamen guztiak ezagututa, hutsune bakoitzari zein aterabide emango ditugun adostuko dugu talde eztabaidaren bidez.

5. Kronograma finkatuz (20 minutu)

Ariketaren helburua: Aurreko dinamikan ateratako soluzioak denbora kronograman kokatzea, hau da, plangintzatzea.

Beharrezko materiala: Kronograma marrazteko plastikoa, horma...

Ariketaren azalpena: Laugarren dinamikan adostutako neurriak denbora lerroan kokatuko ditgu; bakoitzari epe bat ezarriz.

Behin hori eginda, lehentasunezkoak ez diren hutsune guztiekin zer egingo dugun adostuko dugu; etorkizun laburrean, hauei ere konponbidea emateko bermeak ezarriz.

6. Nire agenda betetzeko zuek zer? (30 minutu)

Ariketaren helburua: Aurreko saioan bakoitzak zehaztutako norbere etxeko lanak eta gaurko bigarren dinamikan taldekideen iritziaren arabera jasotakoak burutzeko, taldekideei eskariak egitea.

Ariketaren azalpena: Lehenengo saioan, dinamika bakoitzaren ostean norbere buruari buruzko gogoetak jasotzen joan gara, hobetu nahi dugun hori identifikatuz. Gaurko saioan, taldekideek norberari buruz daukaten iritzia

zein den ezagutu ahal izan dugu. Hala, bigarren saio honi bukaera emateko gogoeta pertsonal bat bultzatuko dugu eta bakoitzak hobetu beharrekoaren gaineko hausnartzeko tarte hartuko dugu.

“Zertan hobetu behar dut?” galderari erantzuten saiatuko gara. Jakitun gara, ordea, norbere garapenerako ezinbestekoa dela ingurukoen laguntasuna. Hori horrela, bakoitzak bere hobekuntzak egiteko beste taldekideei, orokorrean edo maila pertsonalean, eskariak egiteko tarte hartuko dugu: ni honetan hobetzeko, zuek hau egitea gustatuko litzaidake.

